



4. AKTA

OHIKO UDALBATZA, 2006ko otsailaren 28an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Trintxerpeko Alkateordetzan.

NOIZ: Bi mila eta seiko otsailaren hogeita zortzian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Aitor Larrañga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak ez du bere ezin etorria justifikatu. Halaber, bilkura honetan izan da behin-behineko kontuhartzailea Karmele Lizaso Ubera andrea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 05/12.a 05-11-30ekoa eta 06/1.a 06-1-31koa irakurri eta onartzea.

Udalbatzak goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ditu, eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez 05/12. akta onartzea erabaki dute eta zinegotzi gehienek adostasunez 06/1 akta onartzea.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen 06/1 akta onartzeko botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako zinegotziek emandakoak, eta ZAZPI (7) abstentzio, EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako zinegotzientzat.
- Parte hartzeko tartean, honakoek hartu dute hitza:
 - Miriam Cano andreak uste du 06/1 aktako 7. orriko 3. paragrafoan agertu egin behar litzatekeela Alkate andreak zein arrazoigatik kendu zuen proiektua zatiz kontratatzeko ahalmena ematen zion akordioaren 2. puntua, hain zuzen, irizpena ez zetorrelako bat Hirigintzako Batzorde Informatzaile hartan botaziora aurkeztu zenarekin.
 - Udal-idazkariak azaldu du espedientean jasota dagoela irizpena, dagozkion bi puntuak eta guzti, eta aldatzen ez den bitartean fede publikoak duela nagusitasuna.

2.- Xedapen Ofizialk eta Alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutako esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

3.- Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua arabera).

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egin diren gestioen berri eman du:

- Donostiako Udalarekin bilera egin dugu, Udal hori formulatzen ari den Plan Estrategikoaren baitan.
- Ziriza Etxeko erakusketari giltza eman diogu.
- ONCE elkarteko ordezkariekin bildu gara, jabari publikoaren okupazioaz aritzeko.
- Añarbeko Urak sozietateko ordezkariekin bilera teknikoa izan dugu.
- Tejedor jaunarekin bilera izan dugu lonjako proiektuaz aritzeko.
- Kote Olaizola jaunarekin bilera izan dugu, Areizaga autobusen gaiaz eta badiako itsas garraioaz aritzeko.
- Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseilua bildu da, Udalarekin sinatzekoak zituen bi hitzarmenak sinatu ditu.
- Oarsealdeako Administrazio Kontseilua bildu da. Legealdi honetako aktak diskette batean gordeta ematea eskatu diegu, taldeei banatzeko.
- Eudelek Lurralde Batzarra bildu du.
- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - Guillermo Sánchez-Berra jaunak Donostiako Alkatearekin eta Jorge Letamendia jaunarekin izandako bilera zertan den galdetu dio Alkate andreari; izan ere, La Herrera eremuaren garapenari buruzko galderak egin zituzten itxuraz, eta harrigarria iruditzen zaio hori, ez baitu ulertzen ze interes izan dezaketen horri buruz beren udalerriz kanpoko kontu bat izanda. Edonola ere, ontzat jotzen du Alkate andreak erakutsitako adeitasun eta leialtasun instituzionala, Donostiako Udalak gurekiko duen jarrera ez bezalakoa.
 - Alkateak erantzun dio interesa logikoa dela, eremu metropolitanoa delako, eta, edonola ere, Mugen Batzordeak aurrez bazekiela bilera hori egin egingo zela.
 - Guillermo Sánchez-Berra jaunak, Añarbeko Urak sozietateko gerente Noain jaunarekin izandako bilera dela-eta, Alkate andreari eskatu dio aurrerantzean bilera horietara Añarbeko Urak sozietateak Udalean dituen ordezkarietara deitzea.

Azkenik, protesta formala aurkeztu dio Hirigintzako Zinegotziari, Hirigintzako Batzordeak 20-30 minutu atzeratzen direlako hasterako, udal-arkitektoaren eta udal-idazkaria noiz agertuko zain; eta adierazi dio atzeratze hori bukatzea nahi lukeela.

HIRIGINTZA

4.- Pablo Enea berrurbanizatzeko proiektu gidaria. Behin betiko onarpena.

Aurrekariak:

Pablo Enea eremua Berrurbanizatzeko Proiektuak hiri-eremuak nahiz Salinas eremua beren onera ekartzeko egingo diren jarduketan gidari izateko helburua du.

Oso eremu zabala hartzen duelako, zenbait eremu hartzen dituelako eta 4.396.380,49 €-ko aurrekontua duelako, Pasaiako Udalarentzat ezinezkoa da proiektua jardun bakarrean gauzatzea.

Hori dela-eta, proiektua zenbait fase eta jarduketatan egingo da; betiere, udalaren unean-uneko gaitasun ekonomikoaren arabera.

Alkateak 2005eko apirilaren 1ean eman zuen Dekretuaren bidez hasierako onarpena eman zitzaion proiektuari, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2005eko apirilaren 11n, herritarrek proiektua aztertu eta iritziak ager zitzaten.

Proiektua jendaurrean jarrita egon zen epean 132 alegazio aurkeztu ziren.

Alegazio horiek guztiak 8 alegaziotan jaso dira laburtuta, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak 2006ko otsailaren 20an sakon aztertu eta eztabaidatu ondoren, irizpen hauek eman dira horiei buruz:

1.-Jabetza-erregimenari buruzko alegazioak.

EA, IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin dira alegazioak, gai hori ez dagokiolako proiektuari.

Hala eta guztiz ere, Hirigintzako Zinegotziari agindu zaio Ondareari eskatzea abiarazi dezala espediente bat, jakiteko aukerarik balegokeen jabari pribatuko espazio batzuk hartzeko.

2.- Ekipamendu-partzelaren hirigintza-erregimenari buruzkoak.

EA,IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin dira alegazioak, partzelaren kalifikazioa ez delako aldatu.

3.- Haur-parkeei buruzkoak.

EA,IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin dira alegazioak, ez baitago lekurik haur-jolasak jartzeko; gainera, jolasak egon badaude oraingo



parketan, eta aukera izango da Espinosa de los Monteros plazan jartzeko, gainera, eskolako partzelan parkinga egiten denean haur-jolasentzako proposamena egitea eskatuko da.

4.- Espaloi eta aparkalekuei buruzkoak

EA,IU, PSE eta PNV zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin dira alegazioak, eta bere horretan utziko dira bai aparkalekuak bai proposatutako espaloien ezaugarriak.

5.- Noranzko bakarrekoei buruzkoak

EA, IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, alegazioak ezestea proposatu da egin beharreko lur-mugimenduak konplexuak eta neurritz kanpokoak liratekeelako.

6.- Eskailera mekanikoa jartzeko lekuei buruzkoak.

EA,IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin da alegazioa, proposatutako lekuetan jartzea teknikoki ezinezkoa litzatekeelako.

7.- Autobus eta taxi buruzkoak

EA,IU,PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin da alegazioa, gai hori ez baitagokio urbanizazio-proiektuari.

8.- Bestelako alegazioak: uraren presioa, edukiontziak, Espinosa de los Monteros plazako aparkalekua.

EA,IU,PSE eta PNV alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dutenez, ezetsi egin dira alegazioak.

Espinosa de los Monteros plazan lur gaineko aparkalekua jartzeko alegazioa aho batez ezetsi da.

Lurpeko parkinga egiteari buruzko alegazioa IU, PSE eta PNV alderdietako zinegotziek emandako botoengatik ezetsi da, Izarrako aparkalekuari lehentasuna eman behar zaiola uste dutelako. EA abstenitu egin da.

Hala, bertaratutako zinegotzi guztiak adostasunez hala erabaki dutenez, eta, 2006ko otsailaren 20 irizpen baten bidez Hirigintza eta Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak egindako proposamena kontuan hartuta, Udalbatzak:

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako alegazioak ezestea eta Pablo Enea eremua berrurbanizatzeko proiektu-sorta behin betiko onartzea.

BIGARRENA.- Proiektuaren exekuzioa faseka antolatzea, gaitasun ekonomikoaren arabera.

- Parte hartzeko txandan honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak agerrarazi du Batzorde Informatzaileetako eguneko gai-zerrendek ez dakartela ebazpen-proposamenik, eta horregatik irizpenak eztabaidagarri izaten dira, testuak ez direlako aurretik ezagunak.
 - Alkate andreak Hirigintzako Zinegotzi Ordezkaritari agindu dio Batzorde Informatzaileetarako, aurrerantzean, gai-zerrendak ez ezik ebazpen-proposamenak ere bidaltzeko aurrez.

5.- Bortalaborda H.I.E.-n portuko zerbitzu-gunearen ordenazioaren aurrerapena. Behin betiko onarpena.

Gaia mahai gainean geratu da, harik eta Oarsoaldeko Industrialdeak eta Pasaiako Udalak sinatu beharreko Hitzarmenaren negoziazioa amaitzen den arte.

6.- La Herrera eremurako ordenazioaren irizpide eta helburuak idazteko lanari buruzko mozio transakzionala.

Batzordeak, bertaratutako zinegotzi guztiek aho batez erabaki dutenez, eta Eledunen Batzordeak 2006ko otsailaren 20an egindako proposamena kontuan hartuta, Udalbatzari aurkezten dio La Herrera eremuaren ordenazioaren irizpideak zein helburuak idazteari buruz honako mozio transakzionala:

“Geroko garapenerako oinarrizko ildoak (gida-lerroak eta irizpideak) sortu eta onartzea eskatzen dugu; betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroaren 2an aurkeztu eta La Herrera eremuko hirigintza-proiektuko Hiri Errehabilitaziorako Batzordeak aztertutako proposamenaren barruan.”

MOZIOAK

7.- PP alderdiko zinegotziek aurkeztutako mozioa, Antxotik pasatzen den N-1 errepide-zatiari buruz.

Partido Popular alderdiko zinegotzi-taldeak aurkeztutako mozioa aztertu ondoren, eta Eledunen Batzordeak 2006ko otsailaren 20an egindako proposamena kontuan hartuta, honakoa aurkeztu du onartzeko:

“MOZIOA:



Denbora askoan atzeratu den arren, badirudi laster gauzatuko dela Donostiako gaur egungo bariantetik Pasaiara bidesaririk gabe sartzeko bidea; hala pentsa daiteke Foru Aldundiak egindako adierazpenak kontuan hartuta. Horrenbestez, egun Pasai Antxotik pasatzen den N-1 errepide nazionalaren zatia epe laburrean hiri-bide bihurtzeko modua izango da.

Aldaketa hori herritarrei asko interesatzen zaienez —Udaleko Gobernu Taldeak ere hala aitortu du—, eta Pasaiako Badia bere onera ekartzeko egin beharreko ekintza nagusien artean sartzen denez, ahalik eta azkarren gauzatu behar litzateke.

Horregatik, Oinarrizko Proiektua definitzeko lana ez litzateke egiten ari diren obrak amaitu arte atzeratu behar; haatik, azterketekin eta proiektuekin batera egin behar litzateke, guztiaren exekuzio-epea ahalik eta laburrena izateko.

Hori dela-eta, Udaleko Alderdi Popularrak akordio hauek aurkezten dizkio Udalbatzari:

AKORDIOA

Udal Gobernuari eta, bereziki, Alkate andreari, eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziaketan hastea, honako helburuak betetzeko:

- Herrera, Buenavista eta Pasai Antxotik pasatzen den N-1 errepidearen zatia hiri-bide izateko aldaketa definitu eta proiektatzea.
 - Tartean diren erakundeen artean elkarlan teknikoa nahiz finantzarioa nola gauzatuko den adostea.
 - Prozesu guztia bukatzeko egutegi laburrena finkatzea.”
- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - EAJ-PNV eta EA udal-taldeetako ordezkariak hasieran botazioan abstenitzeko asmoa agertu dute, nahiz edukiarekin ados egon, garaiz kanpokoa delako; izan ere, gaia jada organo eskumendunaren eskuetan dago eta garatzen ari da.
 - Lore Suárez andreak azaldu du, nahiz analisi horrekin bat etorri, bere taldeak alde botatuko duela eta EAJ-PNV eta EA alderdiak ere aldeko botoa emateko animatu nahi izan ditu.
 - Jesús M^a García Garde andreak azaldu du bere taldeak ere alde botatuko duela, ez dakarrelako oztoporik, baina talde aurkezleari eskatu dio mozioa beranduago aurkezteko, lehenengo proiektua aurkez-tean.
 - EAJ-PNV eta EA taldeetako ordezkariak adierazi dute aldeko botoa emango dutela.

- Guillermo Sánchez-Berra jaunak galdetu du ez ote den PP taldearen ekimenak gaizki-ikusia eragiten dutela, ze gogoratu du “topoa” lurpetik pasatzeko egitasmoa zela-eta hasiera batean guztiak gainera etorri zitzaizkiela, eta gero mozio transakzionala onartu zela.

Horren ondoren, talde batek beste bati egiten dion jarraipena azaleratu nahi izan du, EA eta EAJ-PNV taldeei aipu eginez.

- José Luis Goikoetxea jaunak bere buruari galde egin dio gaizki hartu dena ez ote den alde botatu izana. Jarraikeria-salaketari buruz esan du hori aipatzeak salatzaileari berari kentzen diola arrazoia.
- Miriam Cano andreak nabarmendu dio Sánchez-Berra jaunari ez duela ulertzen bere hitz hartzea, batez ere aldeko botoa eman denean nahiz eta mozioa garaiz kanpokotzat jo. Bigarren baieztapenari dagokionez, atsotitzak dioen bezala “..... oídos sordos”. Eta guztiok esagutzen dugu atsotitzaren lehenengo zatia.
- Guillermo Sánchez-Berra jaunak adierazi du atzera botatzen duela mingarri izan dena.

ADMINISTRAZIOA

8.- Bakoitzaren helburu eta eskumenei dagokienez, Pasaiako Udalaren eta Portuko Agintaritzaren arteko koodinazioa arautzeko hitzarmena negoziatu eta idazteko oinarriak onartzea.

Udalbatzak, zinegotzi guztiek hala adostuta, eta Eledunen Batzordeak 2006ko otsailaren 20ko bileran aurkeztutako proposamena kontuan hartuta, akordio hau Udalbatzan aurkeztea erabaki du, onarpena eman diezaioten:

AKORDIOA

LEHENA.- Bakoitzaren helburu eta eskumenei dagokienez, Pasaiako Udalaren eta Portuko Agintaritzaren arteko koordinazioa arautzeko hitzarmena negoziatu eta idazteko oinarriak onartzea. Akordio honi erantsita doaz oinarriok, egin beharrezko izapideak eginda.

BIGARRENA.- Alkate andreari baimena ematea negoziazioak zuzentzeko eta Elkarlan Hitzarmena formulatzeko, oinarri horien arabera betiere, gero Udalbatzak onar dezan.

- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:

- José Luis Goikoetxea jaunak adierazi du ez duela gogoan Eledunen Batzordeak Alkateari Hitzarmena sinatzeko ahalmena eman zionik.
- Miriam Cano andreak eskatu du dokumentu sinatu horren kopia bidal diezaiotela.

9.- Zinegotzi kargua uztea. Rafaela Romero Pozo a.

Pasaiako Udaleko PSE-EE alderdiko Rafaela Romero Pozo zinegotzi andreak aurkeztu eta sinatutako idatzia irakurri da:

“Nik, Rafaela Romero Pozo Pasaiako Udalean PSE-EE (PSOE) alderdiko zinegotzi naizenak, Udalari jakinarazten diot DIMISIOA aurkezten dudala Udaleko zinegotzi-lanetarako; eta horretarako aurkezten dut idatzi hau, dagozkion ondorioak izan ditzan eta dimisioa dagozkion organoan behar bezala tramita dadin”. Pasaian, 2006ko otsailaren 22an.

Horren berri jakinda, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Dimisioaren jakinaren gainean geratzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hauteskunde Junta Zentralari, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua xedatzen dituen ondorioak izan ditzan.

- Parte hartzeko txandan honakoek hartu dute hitza:
 - Alkateak egindako lana eskertu dio eta etorkizunean arrakasta opatu dio.
 - Rafaela Romero andreak eskerrak eman dizkio Korporazioari egin dioten harrera-gatik eta hartu duen esperientziagatik, eta Pasaiari on opatu dio.
 - Guillermo Sánchez-Berra jaunak eskerrak eman dizkio Rafaela Romero andreari, korporazioko kideekin izan duen jarrera onagatik.
 - Jesús M^a García Garde, Miriam Cano eta José Luis Goikoetxea jaun-andreek ere esker ona agertu diote dimisioa aurkeztu duen zinegotziari.

Eta 10:15etan, batzarra amaituta, nik, jarduneko idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bileran eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.

